



KANALAK

GAIU enpresan, diseinuzko produktu berritzaile eta naturalak bezero edo erosle engana iristeko, gure kanal edo bide nagusia web orria izango da. Bertan; sortutako produktu bakoitzaren irudia eta ezaugarriak azaltzeaz gain, bezeroek diseinuak sortzeko izan ditzaketen proposamenak jartzeko aukera ere egongo da, eta baita beraien zalantzak guri adierazteko ere.

Honez gain; diseinu pertsonalizatu eta izendunak egitean, hauek ere **web orrian** kaleratuko ditugu, gainerako bezeroek ikusteko eta ideiak hartzeko.

Beraz; modu digitalean egin arren, bezeroekin harremana izango genuke web orriaren bitartez, beraien kezka eta proposamenak erantzunez.

Aldi berean; merkaturatzeko unean beste puntu indartsu bat **azokak** izango lirateke. Konkrétuki herri txikitako azoka alternatiboak. Horrelako tokietan; talde sortzaile berrien lana nabarmentzen eta sustatzen baitute.



Udaletxera ere joango gara gure proiektua aurkeztera eta ezagutzera ematera, hitzaldiak emateko proposamenak eginez, eta baita diru laguntzen inguruko informazio bila ere.

Guzti honekin batera; **sare sozialak** ere erabiliko genituzke gu eta gure proiektua ezagutzera emateko. Youtube, Facebook, Instagram, etab. bezalako aplikazioetan. Horretarako; talde barruan, sare sozialen eta publizitatearen arduradun bat izendatuko dugu, bera arduratu dadin atal honekin.

Honekin batera; gu herri txikitakoak izanda, uste dugu, **ahoz ahoko** ezagutza ere emango dela gure kasuan. Eta poster zein panfletoen laguntzaz, herrian zehar erraz zabalduko dela informazioa.

Azken finean; web orri, panfleto, hitzaldi edo edozein kanaletan, gure helburua, gure proiektuaren onurak eta abantailak adieraztea izango da. Proiektu honekin lortu nahi duguna gizarteari helaraztea.